ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko azaroaren 22ko Erabakiaren laburpena, Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2023-2025 ekitaldietarako laguntzen deialdia aldatzen duena

BDNS (Identif.): 702148.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/702148).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpenaren aldatzea argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran deialdiaren oinarrien aldaketa onartu da, honela:

4. artikulua: Honako hau dio paragrafoak: Laguntzak eskatzeko gehieneko epea oinarri hauetan jasotakoa izango da, eta esku-hartzeak, gehienez ere, 2025eko urriaren 30ean gauzatu beharko dira.

Honela idatzita geratu da: Laguntzak eskatzeko gehieneko epea oinarri hauetan jasotakoa izango da, eta esku-hartzeak, gehienez ere, 2025eko abenduaren 31n gauzatu beharko dira.

14. artikulua: Honako paragrafo hau: Okupatzaileak aldi baterako birkokatzeko jarduketak, gizarte-laguntza eta bidezko jarduketei lotutako antzeko beste batzuk.

Honela idatzita geratu da: Okupatzaileak aldi baterako birkokatzeko jarduketak, gizarte-laguntza eta bidezko jarduketei lotutako antzeko beste batzuk, gehienez 110,00 euroko gastuarekin bizikidetza-unitate bakoitzeko.

37. artikulua honela idatzita geratu da: Laguntzak ordaintzeko sekuentzia: Laguntzak emateko ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak edo hark eskuordetutako zinegotziak emango du laguntzak ordaintzeko agindua, honako sekuentzia eta prozedura honen arabera:

a) Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzak emateko ebazpenarekin, lehen ordainketa komunitateei emandako laguntzen ehuneko 45ekoa izango da, eta kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsona fisikoei edo bizikidetza-unitateei emandako laguntza gehigarrien ehuneko 50ekoa. Ordainketa hori dagokion ordainketa-eskaera aurkeztu ondoren egingo da, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

— 7. artikuluan zerrendatutakoa. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak. 34. artikuluan aipatutakoa. Laguntza-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

— Lehendik dagoen eraikinaren liburua egin izanaren faktura, eraikinaren egungo egoeran eta birgaituta dauden energia-eraginkortasunaren ziurtagiriak barne hartzen dituena, energia primarioaren kontsumo berriztaezinaren ehunekoa berariaz adierazita.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Obra gauzatzeko ardura duen enpresarekin edo enpresekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, laguntzaren xede diren obra guztiak gauzatuko direla bermatzeko.

— Obra hasteko aktaren kopia, jabekideen erkidegoaren presidenteak, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

b) Bigarren ordainketa, erkidegoei emandako laguntzaren ehuneko 15ekoa, eta kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonei emandakoaren ehuneko 25ekoa, dagokion ordainketa-eskaera aurkeztu ondoren, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eta, horrekin batera, honako dokumentazio hau erantsiko da:

— Gauzatze-lanaren zenbatekoaren gutxienez ehuneko 50 estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Hirugarren ordainketa, erkidegoei emandako laguntzaren ehuneko 10ekoa eta kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonei emandakoaren ehuneko 25ekoa, dagokion ordainketa-eskaera aurkeztu ondoren, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako dokumentazio honekin batera: Gutxienez, honako hauek estaltzen dituzten fakturak:

— Obraren gauzatze-zenbatekoaren gutxienez ehuneko 75 estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

d) Erkidegoei emandako laguntzaren gainerako ehuneko 30a justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo atalean adierazten denaren arabera. Inola ere ez dira ordainduko fase bakoitzean justifikatutakoak baino kopuru handiagoak.

38. artikulua: Honako hau dio paragrafoak: Onuradunek bi hilabeteko epea izango dute dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak erabili direla justifikatzeko, aurreko paragrafoan adierazitako data amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horrek ezin izango du, inola ere, 2025eko urriaren 31 gainditu.

Honela idatzita geratu da: Onuradunek bi hilabeteko epea izango dute dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko (aurreko paragrafoan adierazitako data amaitzen denetik zenbatzen hasita). Epe horrek ezin izango du, inola ere, 2025eko abenduaren 31 gainditu.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 2a

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administratiboko burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:15 Z